

# 11 ARRAZOI OKUPATZEKO



**AZET** ETXEBIZITZA  
SINDIKATUA

**okupazio**  
oficina de okupacion -bilbo-  
**bulegoa**

**KRAN'BA!**  
"KONPARTEA"



# aurkibidea

Sarrera.....	4
Okupazioa: espekulazioaren kontrako tresna .....	7
Okupazioaren inguruko oinarrizko kontzeptuak .....	12
Hamaika arrazoi okupatzeko.....	18
Okupazioaren egungo testuinguru sozial eta politikoa.....	38




# sarrera

## ¿Zer da dokumentu hau?

2014ko urrian Bilboko Okupazio Bulegoak idatzitako «okupazio-mugimenduaren argumentarioa»ren eguneraketa daukazu eskuartean, hausnarketa eta eztabaida prozesu baten emaitza. Bulegoaren 4. urteurrenean, Bilbon eta inguruetan Okupazio Mugimenduak bizi zuen egoerari buruz eztabaidatzeko eta hausnarketak partekatzeko interesa zuten pertsona guztientzako bilera irekia deitu zen. Asanblada horretan ikusi zen, besteak beste, okupazioaren aldeko arrazoi posible guztiak bilduko zituen txosten bat egiteko beharra eta haren baliagarritasuna. Dokumentu horretan Okupazio Mugimenduko talde batek partekatutako hainbat argudio bildu ziren, edozein pertsonak borroka horren alde erabili ahal izan ditzan, bai etxebizitza izateko eskubidea<sup>1</sup> bermatzerakoan, bai okupazioari buruzko eztabaidak aberastu, defendatu edo babestu behar dituenean.

Argumentarioak forma hartu zuenetik hamar urte igaro eta gero, testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoa dezente aldatu da, baita gure auzoetako eta antolakuntza espazioetako dinamikak eta horietan parte hartzen duten kideak ere. Gentrifikazioa, higiezinaren espekulazioa eta errentismo herritarra bezalako prozesuak etxebizitza-eskubidearen mehatxu gisa agertu dira; eta etxebizitza oinarritzko berme izatetik sarbide mugatuko merkataritza ondasun izatera eraman dute. Bestalde,



<sup>1</sup> Eskubide kontzeptua erabiltzen dugu egoera batzuetan Okupazio Mugimendua legitimatzeko erabilgarri zaigulako, eta etxebizitza bizitzeko oinarritzko bitarteko dela adierazi nahi dugu. Kontzeptu hori erabiliagatik, ez dugu geure burua ez gizarte burgesen subjektu eskubidedun identifikatzen, eta ez dugu haren dispositibo legal eta juridikoa babesten, tarteka gure alde instrumentaliza badezakegu ere.

krisiaren adierazpen desberdinek, migrazio-, osasun- eta ingurumen-krisiek, esaterako, prekarietatea areagotu besterik ez dute egin, eta komunikabide masiboen individualismo-, gorroto- eta desinformazio-diskurtsoek zeharkatu dute.

PEgoerari aurre egiteko, herri mugimendua desjabetutako klasearen beharren eta arazoen arabera antolatu da, eta azken urteotan kapitalismoaren krisi ekonomiko eta soziopolitikoari erantzuteko hainbat antolakuntza gune eratu dira: etxebizitza-sindikatuak, elkarlaguntza-taldeak, kooperatibak, biltegi herrikoiak... Jabetza pribatuaren, esplotazioaren eta gure bizitzen merkantilizazioaren aurkako borroka modua izateaz gain, okupazioa praktika autonomo eta autogestionatua izan da eta izaten jarraitzen du, etxebizitza-eskubidea eraginkortasunez gauzatzeko eta herri-sarea eta antolakuntza sostengatuko duten gune autogestionatuak sortzeko.

Egoera berri horri erantzuteko, **Bilboko Okupazio Bulegotik, AZET Etxebizitza Sindikatutik eta Kranba! Konpartsatik** argumentarioa eguneratzeko beharra ikusi da. Argumentarioaren eguneraketa-prozesuaren helburua da okupazioaren inguruko esperientzia berriak maila praktikoa zein teorikoa kolektiboki indartzeko eta aberasteko balio izatea.

## Zertarako balio du?

Tresna hau, asmatutako beste batzuekin batera, okupazioaren aldeko edozein pertsonak erabil dezake, sistema kapitalistaren gehiegikerien aurrean gure auzokideen autodefentsa gaitasuna indartzeko. Etxebizitzaren problematikak protagonismo handiagoa du oraingo argumentarioan, testuinguru horretan areagotzen ari baita gehien okupazioaren aurkako erasoaldi sozial, mediatiko, judizial, administratibo eta errepresiboa.

Eskubide hori ukatzeko arrazoiak ezagunak dira, baina esperientziak diosku, batzuetan, okupazioa defendatzerakoan edo alternatibaren bat planteatzerakoan, zaila egiten zaigula kasu zehatzetarako argudio egokiagoak aurkitzea.

Hori dela eta, testu honetan edozein testuingurutan okupazioa defendatzerakoan aurki ditzakegun egoerak azaldu dira. Bai idatzi zen unean, bai eguneratze- prozesuan, kontraesan eta zalantza ugari sortu dira. Horiek gaintitzen saiatu gara, eta horrela



eztabaida sakondu eta aberastu da. Hamar urte aski dira energiak eta ideiak indartzeko eta pertsona berriak Mugimenduan sartzeko, errealitate eta jatorri desberdinetatik elikatuta eta desberdintasunak partekatuta. Horrek gai eta arazo desberdinak jorratzen lagundu du. Mugimendua bera askotarikoa eta heterogeneoa bada ere, honako lan hau minimoen bateratzea da, eta Mugimenduan bertan parte hartzen duen edozein pertsonak bere burua islatuta ikusiko duela uste dugu.

## Nola erabili?

Alde batetik, esku artean duzun txostenaren helburua da tresna eraginkor, erabilgarri eta baliagarria izatea okupazioaren alde dagoen eta pedagogiaren bidez hura defendatu nahi duen edonorentzat. Tresna gehiago daude: gakoa horiek uztartzea, osatzea eta partekatzea da. Txostenean argudio asko daude, baina batzuk faltako dira; beraz, guztion lana izango da aberastea.

Bestalde, bakoitzaren esku geratzen da txosteneko argudioak nola erabili. Argudio bakoitzaren garrantzia norberaren balorazioan datza. Batzuek uste izango dute zenbait argudio bigarren mailakoak direla, eta alderantziz. Esperientziak erakutsi digunez, etxebizitza abandonatuen atzean mota guztietako jabeak daude, eta modu desberdinetan jardungo dute. Batzuk jabetza ugarikoak dira, beste batzuk espekulatzaileak, beste batzuek ez dakite zer egin etxebizitzarekin... etxe bakoitza kasu bat da. Ez dio axola, hemen etxebizitzari ematen zaion erabilpen pragmatikoa eta gure borrokaren praktikan ematen zaion erabilpena da garrantzitsuena.

**Beraz, ekin lanari!**



**ok-  
upazioa:  
espe-  
kulazio-  
aren  
kontrako  
tresna**



Okupazioaren premia soziala baieztatzeko lehen urratsa gure inguru hurbilari buruzko datu batzuk aztertzea da.

Eustaten, Estatistiken Euskal Erakundearen, arabera 2022ko urtarrilaren 1ean EAEn 1.079.201 etxebizitza zeuden guztira; horietatik 918.484 familia-etxebizitza nagusiak ziren eta 159.628 ez-nagusiak. Era berean, 924 establezimendu kolektibo erabileran eta 165 erabilerarik gabe egongo lirarteke. Kontuan izan behar da lortutako datuak aldatu egin daitezkeela etxe bat etxe huts moduan identifikatzeko aukeratzan diren irizpideen arabera. Beraz, ezinezkoa da zifra zehatzak ematea, ez baitzaie interesatzen -erakundeei, jabeei, inbertsio-funtsei...- etxe abandonatuen kopuru handia ikusaraztea. Horrela, lehenengo etxebizitza ez diren familia-etxebizitzak zenbatu ditzakegu, baina ez horietako zein dauden hutsik, oporretarako zeintzuk erabiltzen diren, edo oso noizbehinka, edo erabileran turistikorako, etab. Horrela, EAEn etxebizitza hutsen kopurua %4 eta %10 artekoa izan liteke, erabiltzen diren iturrien eta irizpideen arabera. Ehuneko horiek 43.000 eta 108.000 etxe huts artean adierazten dituzte. Edonola ere, ehuneko hori oso handia da, kontutan hartzen badugu familia askok non bizi ez dutela, edo etxebizitza lortzeko haien bizitza hipotekatu behar dutela.

Errealitateak aspaldi erakusten digu etxebizitza funtsezko beharretik kontsumo-

beharrera igaro dela, eskubide izatetik, pribilegio izatera igaro dela. Eraldaketa hori ez da ustekabekoa edo kasuala izan; ostera, gure eskubidearekin negoziatzen aberastu diren espekulazio-botereek inplementatutako estrategia zorrotza izan da, eta horrela eskubidea luxu bihurtu dute.

LEspekulazioa gero eta nabariagoa da langile auzoetan. Erabileran turistikorako etxebizitzak EAEn 2.617 izatetik 4.478 izatera igaro dira azken 5 urteetan. Egindako zenbait ikerketen arabera, alokairu turistikoaren errentagarritasuna ohiko alokairuena baino hiru aldiz handiagoa da; ondorioz, espekulatuzaileak inoiz baino gehiago hasi dira horretan inbertitzen. Adibide moduan, azken urteotan, Bilboko etxebizitza turistikoaren kopurua %35 igo da, eta, horren eraginez, alokairuaren prezioa %14.

Datu horietan ikus daitekeen legez, espekulazio estrategia horren ondorioak nabariagoak izan dira azken urteotan. Etxebizitzaren prezioak muga jasanezinetaraino igo dira, bai hipotekaren kasuan, bai alokairuenean. Gero eta gehiago ordaintzeko, gero eta lan gehiago egitea da irtenbide bakarra. Soldatari-igoerek ezer gutxirako balio izan dute aldi berean etxebizitzaren kostuak soldataren erdia baino gehiago eskatzen badu; eta horri etxeak dakartzen gastuak gehitzen bazaizkio -esaterako argia, gasa, ura, etab.-, egoera jasanezina sortzen da hipoteka,



alokairua edo hornidurak ordaintzeari utzi behar dioten pertsona askorentzat. Lana uztea, esplotazio-egoera jasanezina izan arren, suizidio bihurtzen da.

Gazteei dagokienez, are okerragoa da egoera: lan-prekarietate iraunkorraren eta gazteen langabezia beti altuagoaren artean harrapatuta daude. Etxebizitza/logela alokatuta autonomiaz independizatzeko itxaropenak guztiz murrizak dira. Etengabe higiezinaren alorreko arrazismoa pairatu behar duten pertsona migratuen edo egoera administratibo irregularrean daudenen kasua ere bera da, beren egoerari baldintza duinetan lana aurkitzeko zailtasuna eransten zaiolarik. Txiroitze horren ondorioz, atsedean hartzeko etxebizitza edukitzeko modu bakarra okupazioaren

bidez lortzen da.

Espekulazioa eta esplotazioa sinbiosi perfektuan lotuta daude. Sinbiosi horrek azpiratzeko eta dirua erreproduzitzeko makina gupidagabe legez funtzionatu du urteetan. Kate horiek are gehiago estutu dira 2008ko krisi ekonomikotik eta ongizate-estatuaren hausturatik hona. **Azken urteotan estatuek pentsamendu neoliberal bakarraren logikapean ezarritako politikek Kapitalaren statu quo-a eta erreprodukzioa bermatzen dute, jabetza pribatuaren eta espekulazioaren izenean.**

Estatu demokratiko eta sozialaren azken 40 urteetan, legeak interes espekulatiboen eta jabetza pribatuaren zerbitzura egon dira.



Onartu diren plan urri eta eskasek neurri partzialak baino ez dituzte jaso, eta ez diote inola ere heldu arazoaren konponbideari; inoiz ez da politika integral bat planteatu non, hirigintza-plangintzaren eta etxebizitza-politikaren bidez, etxebizitza-zerbitzu publiko justu eta eraginkorra sortzea bilatu den, erabilera-balioan oinarrituta eta ez truke-balioan. Aldiz, partxeak sortu dira pertsonak modu prekarioan biziraun ahal izan dezaten, hala nola DSBE -Diru-Sarrera Bermatzeko Errenta- eta horrekin lotutako EPOa -Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria-, edo udalek eta gobernuek sustatzen dituzten infra-etxe instituzionalizatuak.

Sistema kapitalistak etxebizitza duina bermatzeko eskubidea ukatzeko dituen arazoak nabarmenak dira, eta horren adibide garbia da Etxebizitzaren Lege

berria. **Hauteskunde-erreforma lotsatia, non etxebizitza duina lortzeko zailtasunak dituzten pertsona gehienak ez dauden kontuan hartuta. Hau da, prekarizatutako pertsonak, higiezinaren arloko arrazakeria pairatzen dutenak, erroldagatik ordaintzen dutenak edo azpi-errentamendua egitera behartuta daudenak kanpoan uzten ditu.**

Okupazio Mugimenduko militanteok gogor aurka egiten diogu sistema kapitalistak gure oinarritzko beharrezanekin trafikatzeko duen moduari.

Jabetza pribatuaren defentsa etxebizitza- eskubideari gailentzeak okupazioa bidegabekeria horren ondorio bihurtzen du. Argi dago, beraz, legezkotasunak ez duela justizia esan nahi, ezta zilegitasuna ere. Gure ustez, etxebizitza abandonatuak okupatzea zilegi da, are gehiago espekulatzeko erabiltzen badira. Gure lana



jabetza pribatuari buruzko eztabaida mahai gainean jartzea da.

Eztabaida horretan, komunikabideen zeregina ez da inpartziala, klase menperatzaileen interesak defendatu eta haien diskurtsoak iraunarazten eta erreproduzitzen dituztelako. Horren ondorioz, desitxuratutako informazioa dela eta, okupazioaren gaiari buruzko eztabaida faltsuak sortzen dira. Askotan irakurri ditugu okupazioari buruzko albiste zentzugabeak, beren ondorio negargarriengatik ez balitz, barre eginaraziko liguketenak. Borrokatu behar dugun beste erraldoietako bat dira; izan ere, egiazkoa eta objektiboa den informazioa edukita ibilbiderik izango ez luketen jarrerak irakasten dizkiete herritarrei. Malcolm X-k esaten zuen: «Erne ez bazabiltzate komunikabideek zapaltzailea maitatu eta zapaldua gorrotatzera eramango zaituztete».<sup>2</sup>

Beraz, okupazioaren zilegitasun sozialaren lana beharrezkoa da, hurbilenetik eta egunerokotasunetik hasi eta urrunagoko mailetaraino, betiere egoera jasanezin eta bidegabeak ahalbidetzen eta betikotzen dituen sistemari kontraesanak ateratzen. Auzo antolakuntza eta auzokideen arteko sareak sortu eta indartzea ezinbesteko bihurtu da.

*Erne ez bazabiltzate komunikabideek zapaltzailea maitatu eta zapaldua gorrotatzera eramango zaituztete*

<sup>2</sup> Malcolm X (1991). *Vida y voz de un hombre negro. Autobiografía y selección de discursos*. Tafalla: Editorial Txalaparta. Págs. 231-214. Gure itzulpena.



**okupazio-  
aren in-  
guruko  
oinarrizko  
kontzep-  
tuak**



## ETXEBIZITZA = OINARRIZKO BEHARRA

Etxebizitza pertsona guztien oinarrizko beharra da, bizi-proiektu indibiduala edo kolektiboa garatzeko beharrezkoa den oinarrizko babeslekua. Etxebizitzak, etxea osatzen duten lau hormen dimentsio fisikoak gainditzen ditu, eta komunitatearen zein familiaren bizitza baldintzatzen duen faktore bihurtzen da. Etxebizitzaren arazo estrukturalak intimitatea, osasuna, bizilekua... izateko aukera ere baldintzatzen du. Etxebizitzak biolentzia guztiez babesteko lekua izan behar du; izan ere, gure lan-indarra erreproduzitzeko espazioaz gain, gure bizitzen alderdirik intimoena garatzeko dugun lekua da.

## ETXE HUTSA VS ETXE ABANDONATUA

Nahiago dugu etxe abandonatua terminoa erabili etxe hutsa terminoaren ordez; izan ere, nahiz eta gehienetan hutsik dauden etxeak abandonatuta egon, ez du beti zertan horrela izan.

Beraz, kontuan hartu behar dira etxe hutsek abandonatuta egotea eragiten duten arrazoiak: hutsik daraman denbora, bizileku ez izatea edo beste erabilera edo funtzio sozialik ez izatea, esaterako. Era berean, esan liteke etxe abandonatuak direla haiek in espekulatzeko hutsik daudenak, eta, modu horretan, izan beharko luketen funtzio soziala betetzen ez duen erabilera ematen zaie.

## HIGIEZINEN ESPEKULAZIOA

Lurrak edo ondasun higiezinak salerostea eta kontrolatzea, ondoren birsaltzeko edo alokatzeko asmoz, manipulaturako merkatu baten prezioen gorabeherak eragindako etekin ekonomikoa maximizatzeko.

Espekulazioa modu basatian promotoreek, inbertsio-funtsek eta higiezin agentziek egiten dute, batez ere; baina administrazio publikoek eta jabe ertain eta txikiek ere bai. Agente horien guztien aberastasuna desjabetutako klaseen lepotik handitu da. Etxebizitza ugari berenganatu eta bahitu dituzte, beren interes ekonomikoak maximoak direnean



soilik merkaturatzeko. Espekulatzailak etheen prezioarekin jolastu dira, gizarteko gainerako pertsonen etxebizitza duina eskuratzeko duten eskubideari kalte eginda.

## HIRI-LATIFUNDISTA

Hiri ingurunean finka askoren -etxebizitzen, lonjen edo lurzoruen- jabe diren gizabanako, familia edo pertsona juridikoak.

Jabetza horiek esku beretan metatzeko prozesuak hainbat arrazoiengatik gerta daitezke: erregimen frankistaren aldeko familien herentziak betearazteagatik -frankismoak nahitaez desjabetu zituen gerra zibilean eta gerraostean sarraskitu, erbestera behartu edo ekonomikoki zigortu zituzten familiak-, lurzoruak inbertsio-funtsen negozioen bidez saltzeagatik, edo, bankuen kasuan, hipotekatutako etxebizitzen etxegabetzeen bidez.

Jabetza horien erabilerak interes espekulatiboak izan ohi ditu gehienetan, eta honako hauek bultzatzen dituzte:

**I. Infra-etheen alokairua, bi motatakoa izan daitekeena: errenta zaharrak, non jabeak ez duen mantentze-lanak egiteko betebeharra betetzen; edo merkaturako egungo prezioa baino alokairu merkeagoak, jabeari mantenu-betebeharrak betetzea aurreztearen truke.**

**II. Mobbing-a: maizterren bizitza jasanezina egitera bideratutako praktikak dira, errenta baxuan alokatutako etxetik joan daitezten eta, horrela, jabetza hori etxebizitzaren merkaturan txerta dadin, bai tenkatutako eremuetan, bai arrazoi desberdinengatik, higiezinen pelotazo baten proiektzioa dagoen guneeetan.**

**III. Desokupazio-enpresek egindako legez kanpoko etxegabetzeak, okupen kontra zein etxebizitzan egoera irregularrean dauden maizterren aurka.**

**IV. Lurzoruaren kontrola eta, beraz, eskaintza eta prezioena ere bai.**



## ERRENTISMO HERRITARRA

Klase ertain eta ertain-altuak dira azken hamarkadetan erosi edo heredatu duten etxebizitzekin alokairuaren eta higiezinaren espekulazioaren merkatuaz baliatzen ari direnak. Errentadun klase horrek alokairuaren patronal baten antzera jokatzen du, eta, beraz, higiezinaren eta eraikuntzaren arloko promotoreekin batera, alokairua igotzearen, etxegabetzeak bizkortzearen, jabetza pribatua defendatzearen, eta okupazioaren inguruko gezurretan giza-izuen protagonista izatearen interesdun nagusia da.

## INBERTSIO-FUNTSAK

Erakunde publikoek edo pribatuek metatutako zorrekin negozioa egiten duten sozietateak dira. Finantzen espekulazioaren bidez, arrisku handiko zor tituluak erosten dituzte prezio baxuetan, ondoren, merkatuko prezioan saltzeko edo zorra eta interesak kobratzeko, horrela etekin handiak lortuta.

Funts horiek inbertsio handiak egin dituzte higiezinaren negozioan oso era errazean: hipoteka ordaindu ezin izan dieten jabeen zorra erosten diete bankuei prezio baxuan. Gero, etxebizitza horiek merkatuko prezioan saltzen dira, errentagarritasun handia ateratzeko. Metatze-prozesu horren bidez jabetza handien edo hiri-latifundisten adierazle handienetariko bat izatera ailegatu dira.

## ETXEBIZITZA TURISTIKOA

Erabilera turistikoko etxebizitza ohikoan turistei alokatzeko erabiltzen den higiezina da -pisua, etxea, txaleta...-, hau da, aldi baterako turistei ostatu emateko, helburu komertzial hutsekin.

Eremu batean etxebizitza turistikoak gehitzeak alokairuen prezioa igotzea dakar; izan ere, etxebizitzara beharrean



jabetza horiek aldi baterako alokairura bideratzen direnez, epe luzera, auzokideentzako eskuragarri dauden etxebizitzaren eskaintza jaitsi egiten da eta prezioak igo egiten dira.

## GENTRIFIKAZIOA

Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio eros-ahalmen handiagoa duen klase sozial jakin batek beste klase baten kaltetan hiri-eremu bat bereganatzeko prozesuari, eta hura ematean gertatzen den aldaketa sozio-ekonomiko eta kulturalari. Eremu horiek lehendik degradatutako edo pobretutako espazioak izan ohi dira, baina ezaugarri jakin batzuk dituzte -kokapena, berdeguneak...-, eta horrek erakargarri egiten ditu diru-sarrera handiagoak dituen klase sozialarentzat. Klase horrek eremu horietan inbertitzen du, eta berritu egiten ditu, bizi-mailaren eta alokairuen igoera eraginez. Horrela, diru-sarrera txikiagoak dituzten auzokideak kanporatu egiten ditu.

Batzuetan, gentrifikazioa eta turistifikazioa -zonalde batean turisten kopurua handitzea-batera doaz, azken horrek zerbitzuen eta azpiegituren hazkuntzari eta etxebizitzaren garestitzeari laguntzen baitio, eta jatorrizko auzokideen lekualdaketa eragiten du.

## ALOKAIRU SOZIALA

Alokairu sozialaz ari garenean, merkatuaren arabera baino aberastasunaren arabera mugatzen den alokairuaz ari gara. Etxebizitza oinarrizko beharra bada, ezin da merkatuak ezartzen duen prezioa ordaintzeko gaitasunagatik baldintzatuta egon, baizik eta maizterraren aberastasunaren arabera arautu behar da. Gehien duenak gehiago ordaindu beharko luke; eta gutxien duenak gutxiago.

Horrela, alokairu sozial horren zenbatekoaren eztabaidan sartu gabe, espekulazioaren aurkako tresnatzat hartzen da, pertsona guztiei etxebizitza bizigarria eskuratzeko aukera emango liekeena, merkatuak bermatzen ez dituen gainerako oinarrizko beharrei uko egin behar izan gabe.



Alokairu sozialaren kontzeptuari lotuta joan ohi da biztanleriaren etxebizitza-eskubidea bermatzeko gai den alokairuko etxebizitzaren parke publikoaren –sozialaren– aldarrikapena. Hau da, etxebizitza publiko guztia alokairuan izatea, jabetza pribatua eta ondorengo espekulazioa saihesteko, eta alokairu sozial eta ez-prekarioan izatea.

## KONTRATU PREKARIOA

Prekarioa –edo etxebizitzaren erabileraren prekarioko lagapena– Kode Zibilean apenas aipatzen den kontratu mota da, eta «ordaindu gabe eta horretarako titulurik gabe higiezin baten edukitza erabiltzen duen orok»<sup>3</sup> erabili izan du. Hau da, kontratu prekarioetan etxebizitzaren erabilera kontraprestazio ekonomikorik gabe lagatzen da. Familiakoen arteko ohiko egoerak edo benetako okupazio egoerak jasotzen dituen figura da. Prekarioak ahalmena du alde bakoitzaren betebeharrak argitu eta banatzeko, jabearen jabetza eskubideari eragin gabe.



<sup>3</sup> Auzitegi Gorenaren hainbat sententzian agertzen den Prekarioaren instituzioaren definizio juridikoa.

Denboran hurbilenak 2008ko azaroaren 6koa eta 2022ko azaroaren 10ekoa dira. Estatuko Aldizkari

Ofizialean eskuragarri.



**hamai-  
ka arra-  
zoi ok-  
upatze-  
ko**



Hurrengo taulan aurkezten duguna okupazioaren aurka arazotzat planteatu ohi dizkiguten aitzakiei erantzun azkarrak emateko eskema baino ez da. Taularen ostean puntu guztiak askoz garatuago aurkituko dituzu.

«Legeak errespetatzeko daude...»

**Zilegitasun soziala/Delitua.** Zilegitasun soziala/Delitua. Delitu kontzeptua gizartearen sensibilitatearen araberakoa da. Nork erabakitzen du zer den delitua eta zergatik? Delituaren inguruko kontzepzioa aldatu egiten da. Okupazioa lehen ez zen delitua, 1995eko Zigor Kodearen erreformaz geroztik hasi zen delitu izaten. Delitu bihurtu zuten espazioen erabilera soziala aldarrikatzen hasi zenean. Hain zuzen ere, espekulazioaren aurkako tresna moduan erabiltzen hasi zenean. Okupatzea delitua da, baina ez luke delitu izan behar, zilegi da eta. Espekulazioa, ordea, delitua ez den arren, ez da zilegi. Zilegi al da espekulatzea, legeak urratzen ez badira ere, non bizi ez duen jendea dagoen bitartean? Adibidez: intsumisioa ere delitua zen lehen, eta orain ez.

«Jabea dauka eta nahi duena egin dezake bere jabetzarekin...»

**Jabetza.** Jabetza ez da eskubide absolutua. Legeek ere betebehar batzuk ezartzen dizkiete jabeei. Eskubide absolutua ez izateko beste arrazoi batzuk lurzoruaren funtzio soziala eta lurzoruaren erabilera espekulatiboaren debekua dira -EKren 33. artikulua-, baita etxebizitzarako eskubidea ere -EKren 47. artikulua-.<sup>4</sup>

<sup>4</sup> Ordena kapitalistaren oinarri den aldetik aparatu juridiko-legalarekiko dugun aurkakotasunak ez du alboratzen egoera zehatz batzuetan okupazioaren defentsan instrumentaliza ezin daitekeenik.



«Ni ez naiz zure etxean sartzen...»

«Ogitan joan eta etxea okupatu zioten bat ezagutzen dut...»

**Alarma soziala.** Behar edo aldarrikapen politikoagatik abandonatutako etxebizitzak baino ez dira okupatzen; abandonatuta ez balego, bizilekua bortxatzea izango litzateke. Ezingo zinateke nire etxean sartu nik ez nukeelako abandonaturik edukiko. Etxe abandonaturik ez balego, ez litzateke okupaziorik egongo.

«Nire bizitza osoko aurrezkiak dira, nire lanarekin lortutakoak...»

«Nire amamaren etxea da eta pena ematen dit saltzeak...»

«Nire seme-alabentzako gordetzen dut...»

**Denok irabazten dugu.** Badira moduak etxebizitzari eusteko eta etxebizitzarako eskubidea ez urratzeko. Etxea hutsik badago, azkar hondatzen da, eta horrek ematen du pena...

**Jabetza.** Jabetza ez da eskubide absolutua. Legeek ere betebeharrak batzuk ezartzen dizkiete jabeei. Eskubide absolutua ez izateko beste arrazoi bat lurzorua funtzio soziala eta lurzorua erabilera espekulatiboaren debekua dira -EKren 33. artikulua)-, baita etxebizitzarako eskubidea ere -EKren 47. artikulua- .<sup>5</sup>

**Etxebizitza = oinarrizko beharra.** Etxebizitza oinarrizko beharra den heinean, horren inguruko jardun guztiek -publikoek zein partikularrek- etxebizitza eskuratzeko aukera ez kaltetzeko helburua izan behar dute.

«Okupek arazoak sortzen dituzte...»

**Denok irabazten dugu.** Etxe hutsek ematen dituzte arazoak -hezetasunak, kalteak, zorrak...- eta okupek bertan bizitzeko mantenu-lanak egin ohi dituzte.

<sup>5</sup> Artikulu eta legeak aipatzen ditugu egoera zehatzetan kontrako argudio moduan eraginkorrak izan direlako.



«Etxeari zerbait gertatzen  
bazaio, nire ardura da...»

**Alarma soziala.** Erantzukizuna okupatzaileei eskualdatzeko moduak daude. Hutsik balego eta zerbait gertatuko balitz, jabearen erantzukizuna izango litzateke ziur; eta, gainera, beste batzuek etxebizitza eskuratzea kaltetuko luke.

«Denok berdina egingo  
bagenu egundokoa  
sortuko litzateke...»

**Alarma soziala.** Zaila da egungo erosi etxea kostatzen ahala kostak sistema egin duena baino egundokoagoa sortzea. Okupazio mugimenduak ez ditu konponbide indibidualak soilik bilatzen, etxebizitza duin baterako eskubidea aldarrikatzen du guztiontzat. Inork ez luke esklabo gisa lan egin behar oinarrizko eskubide bat ordaintzeko. Etxe hutsak eta etxerik gabeko jendea dauden neurrian bakarrik gertatzen da okupazioa. Egoera hori, beraz, ez litzateke posible izango.

«Nik ez ditut zure  
eskubideak bermatu  
behar...»

**Etxebizitza = oinarrizko beharra.** Etxebizitza oinarrizko beharra den heinean, horren inguruko jardun guztiek –publikoek edo partikularrek– etxebizitza eskuratzeko aukera ez kaltetzeko helburua izan behar dute. Norbanako moduan nire eskubideen bermatzaile izateak esan nahi du zure ekintzek ez diotela kalterik egingo oinarrizko eskubide bati, besterik ez.

«Gehiago eraiki beharko  
litzateke, erainkuntzak  
enplegua sortzen  
duelako...»

**Espazioen berreskurapena.** Nahikoa etxebizitza huts daude gizartearen beharrezan asetzeko. Etxebizitzak konpontzeak dagoeneko ditugun baliabideak optimizatzen ditu. Ez du zentzurik etxebizitza berriak eraikitzeak etxebizitza hutsak dauden bitartean.



«Nik ere etxebizitza-  
eskubidea defendatzen  
dut, baina hau ez da  
modua...»

**Bizigarritasun zedula.** Okupatutako espazioen segurtasunarekiko eta osasungarritasunarekiko ustezko kezka baten atzean, baldintza egokietan espazio bat konpontzeko dugun gaitasuna zalantzan jartzen duen jarrera ezkututzen da. Autogestioan eta auzolanean lan egindako hamarkadek kontrakoa erakutsi dute.

**Alarma soziala.** Okupazio mugimenduak ez ditu konponbide indibidualak soilik bilatzen, etxebizitza duin baterako eskubidea aldarrikatzen du guztiontzat. Inork ez luke esklabo gisa lan egin behar oinarrizko eskubide bat ordaintzeko. Etxe hutsak eta etxerik gabeko jendea dauden neurrian bakarrik gertatzen da okupazioa.

«Ez da espazio segurua/  
osasungarria...»

**Bizigarritasun zedula.** Baldintza egokietan espazio bat konpontzeko dugun gaitasuna zalantzan jartzen duen jarrera. Autogestioan eta auzolanean lan egindako hamarkadek kontrakoa erakutsi dute.

## GIZARTE-ZILEGITASUNAREN ARGUDIOA

**Hasi aurretik, legitimitatearen eta legezketasunaren arteko aldea azpimarratu nahi dugu.** Zilegitasuna -dela lege batena, dela praktika edo ekintza batena- gizarte-taldeek beren mundu-ikuskeraren eta ikuspegi politiko, etiko eta ekonomikoaren arabera izan dezaketen iritzia araberakoa da. Gizarte-talde guztiek dute ideia bat zer den zilegi eta zer ez, eta puntu gehiago edo gutxiagotan bat egin dezakete, ala guztiz kontrakoak izan daitezke.


Aldiz, legezkoa da lege-testuetan jasotakoa: kodeak, dekretuak, foru-arauak, etab. Beraz, legezketasuna -gurea bezalako demokrazia liberaletan legezkoa dena- lege horiek egiten dituzten pertsonen borondatearen mende dago. Jende askok uste du, pertsona horiek bo- toaren bidez aukeratzen direnez, botoa ematen dutenen interesei erantzuten dietela. Baina



errealitateak erakusten digu gehienetan beren interesei erantzuten dietela: izan enpresa handien interesak –non politikari profesional ibilbidearen ondoren amaituko duten–, izan hurrengo hauteskundeetan boto-emaileak mantendu edo irabazteko hauteskunde-kalkuluak.

Horregatik guztiagatik, legitimitatea eta legezotasuna oso gutxitan doaz elkar hartuta. Halaber, elkartu egiten direnean zilegitasunaren ikuspegia partekatzen duten gizartetaldeen borroken ondorioz da.

**Legitimitatea eta legezotasuna ez dira kontzeptu absolutuak, aldatu egiten dira historian zehar, prozesu historikoekin batera doazelako.** Hainbat okupazio-praktikaren gizarte-zilegitasuna lotuta dago klase apalenak desjabetu eta pobretzeko prozesu historikoekin. Prozesu horietan, legezotasunak, batez ere, jabetza pribatua blindatu du eta desjabetza erraztu. Hala ere, gizarte-egoera konplexuen aurrean, elite politikoen jarrera tarteka herri-klaseei egiten uztea izan da, beren haserrea geldiarazteko edo atzeratzeko.



## LUR-OKUPAZIOA

Ingalaterran, XVII. mendetik aurrera, lur komunalak hesitzeko prozesua zabaldu zen. Horrela, baserriarrek ordura arte erabilitako lurrak produktiboagoak izateko nola ustiatu erabakitzen hasi ziren jabeen eskuetara pasatu ziren. Prozesu horrek gero kapitalismoa garatzeko oinarriak finkatu zituen. Alde batetik, alde aurretik zeuden klase aberatsek lurrak pilatu zituzten, eta, bestetik, klase apalei bizibidea kentzeak une horretatik aurrera bizirauteko ugazaben eta langileen arteko harremanen markoan lan egin behar izan zuen pertsona multzoa sortu zuen.

Hesien aurrean leveller eta digger-en mugimenduak sortu ziren: ordura arte lur komunaleko laborantzaren bidez bizi ziren populazioak hesiak hausten eta lur komunalak berreskuratzen hasi ziren. Hasiera batean, Ingalaterrako jaunek nekazariak erreprimitu zituzten alferren eta alderraien aurkako legeen bidez baserriarrek berreztea zelako asmoa; horrela, beren praktika kolektiboak eta biziraupenekoak alde batera utz zituzten eta lan-harreman berriak onar zituzten. Gainera, XVIII. mendearen amaieran, Inclosure Acts delakoen bidez hesitzeak legezatu ziren, eta jabetza pribatuaren aurkako delituak Ingalaterrako legeriak gehien zigortzen zituenetako bat izatera pasatu ziren. Esan beharra dago garai horretan hasi zela Industria Iraultza. Orduan, desjabetutako nekazariak beren landa-inguruneetatik kanporatu zituzten, eta, azkenik, lantegietan lan egingo zuen hirietako eskulana osatuko zuten. Hori izan zen kapitalismoarekin batera garatzen jarraituko duen landa-exodoaren hasiera.

Europar lurrak privatizatzeko lehen prozesu hori Ingalaterratik abiatu zen, eta XIX. mendean zehar Europa osora zabaldu zen, herri-lurrak kontinente osoan ohikoak zirelako. Kolonialismoaren eskutik, lurrak pilatzeko eredu hori, produktibitate eraginkorrean oinarritua, mundu osora zabaldu zen. Estatu espainiarrean, prozesu hori Mendizabalen desamortizazio deiturikoekin egin zen lehenik. Hala ere, gaur egun, Euskal Herrian, adibidez, mendietako larre komunalek irauten dute.

Latifundisten eskuetan dauden lurrak okupatzea nahiko fenomeno ezaguna da Espainiako Estatuaren hegoaldean -adibidez, Sindicato Obrero del Campo-k (SOC) egindako lur-okupazioak-; Euskal Herrian, berriz, hainbat adibide ditugu: Tosuko eta Otxantegiko okupazioak Bizkaian, Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari erantzuteko; Aroztegiaren okupazioa Baztanen, zonaldeko konplexu turistiko baten kontra; eta Arbonako okupazioa, turistifikazioaren esku geratu behar ziren lurrak abeltzaintza ekoizpenari bueltatzeko.



## HIRI-OKUPAZIOA

Aipatu dugun bezala, lurren pribatizazioak eta industria-garapenak landatik hirirako mugimendua eragin zuten Europan XIX. eta XX. mendeetan. Nekazari-masa proletarizatuak baldintza osasungaitzak zituzten auzoetan pilatzen ziren, industriatik gertuen zeuden lekuetan. Testuinguru horretan, okupazioarekin lotutako hiru prozesu gertatu ziren, baina bakoitzak garapen kapitalistaren une historiko bati erantzun eta erantzuten dio.

Hasieran, hiri-ingurune horietan lur-okupazio antzeko bat gertatzen zela esan dezakegu, batez ere langile migratuek hiri handietan bizitzeko espazio bat -jateko, atsedean hartzeko, sozializatze... leku bat- izateko beharrari erantzuteko. 1960ko hamarkadatik aurrera, Hego Euskal Herrian, prozesu horrek Bilboko hegoaldeko auzoetako biztanleriari hasiera eman zion, Uretamendin eta Masustegin, besteak beste. Hango biztanleek lurrak okupatzen zituzten mendien hegaletan etxeak eraikitzeke.

Hiri-okupazioaren barruan koka dezakegun beste prozesu bat etxebizitzaren okupazioa da. XX. mendean zehar, praktika hori testuinguru desberdinetan hainbat gizarte-taldek egin dute. Adibidez, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Londresen, bonbardaketek suntsitutako auzo osoak okupatu zituzten familiek. 60ko hamarkadatik aurrera fenomeno horrek garrantzia hartu zuen: olatu kontrakultural betean, praktika horren inguruan mugimendu bat sortzen hasi zen. Gazteek eta familiek, migratuek gehienbat, okupatzen zuten Londresen. Hurrengo urteetan, mugimendua Europako beste leku batzuetara iritsi zen -Alemania, Herbehereak, Italia...-, eta horietako bakoitzaren testuinguruaren gizartedynamika zehatzei erantzunda bete zituzten etxebizitza-beharrak.

Estatu espainiarrean, okupazio batzuk auzo-elkarteen laguntzarekin egin ziren, egoera larrian zeuden familien etxebizitza-beharrek eraginda. Batez ere, babes ofizialeko etxebizitzetan eta korporazio eta erakunde ofizialei lagatako etxebizitza sozial hutsetan egiten ziren. Oro har, nahiko praktika ezkutua izan zen beti. Baina klase apalen aurkako hamaikagarren desjabetza besterik izan ez den 2008ko hipoteka-krisialditik aurrera, kaltetuen eta etxebizitza-sindikatuaren mugimendu askok okupazioak bultzatu zituzten egoerari aurre egiteko, eta, batez ere, bankuek eta inbertsio-funtsek osatutako etxebizitzetan jarri zuten arreta.

Azkenik, hiri-okupazioaren barruan, batik bat gazteen mugimenduek -baina ez bakarrik- okupatutako espazioak aipatu beharko genituzke, kontraktasun politikoko praktikak eta



soziabilitate-praktikak aurrera eramateko: okupatutako eta autogestionatutako gizarte-zentroak, gaztetxeak. Askotan, horrelako guneak izan dira kapitalismoaren lan-baldintzen mende jarri beharrik gabe sektore horien emantzipazioa ahalbidetu duten tokiak. Hego Euskal Herrian okupazio horiek garrantzia hartu zuten 1980ko hamarkadatik aurrera, eta inoiz desagertu ez diren arren, errepresioak azken urteotan mota horretako okupazioen kopurua jaistera eragin du. Kasu eta leku batzuetan bortizki erreprimitu dira, baina beste leku batzuetan jarrera toleranteak hartu izan dira.

Etxebizitzan eta gizarte-zentroen okupazioari dagokionez, inflexio-puntu legala 1995eko Zigor Kodearen erreformarekin gertatu zen. Ordura arte okupazioa auzi zibilen bidez ebazten zen, eta horrek prozesu judizialak luzatzen zituen. 1995eko kodean usurpazio-delitua ezarri zen. Erakundeek beren eraginkortasun ezagatik onartu zuten eta biztanleria orokorraren artean axolagabekeriatik hasi eta sinpatiarra eta babesera arteko jarrerak sortzen zituen praktika zigortzen hasi ziren.

Zigor Kodearen erreforma higiezinaren sektorea bultzatzeko elite politikoen lehen urratsetako bat izan zen, jabetza pribaturako eskubide santuaren defentsa alegatuta eta beste edozein eskubideren aurretik jarrita, argi eta garbi. Ordura arte gizartean nagusi zen korronteari jarraitzen zioten komunikabideak diskurtsoak aldatzen hasi ziren, eta okupak maltzur eta gatazkatsutzat aurkezten. Egia da desalojoetako istiluak ohikoagoak izaten hasi zirela, baina hori lege-aldaketaren beste ondorio bat izan zen: desalojoen aurreko okupen legeko defentsa-gabeziak erresistentzia eragin zuen.

2008ko krisiak eragindako okupazio-bolada berriaren aurreko erantzuna 2018ko lege-aldaketa izan zen, eta, horren ondorioz, berehalako etxe-kaleratzea jarri zen abian. Mekanismo horrek arindu egiten ditu jabe txikiak beren propietateak berreskuratzeko prozesuak. Aldaketa juridiko horrekin batera, gaur egun oraindik ere irauten duen kanpaina mediatikoa abiatu zen. Kanpaina horren bidez, komunikabide orokorrek gizarte-eztabaidaren arretagunea aldatu nahi dute, eta etxebizitzaren arazoaz hitz egin ordez, okupazioaren arazoaz hitz egiten dute. Diskurtso hori saltzeko, ez dute inolako eragozpenik desokupazio-enpresetako ordezkariak hizketakide onargarritzat aurkezteko -legez kanpoko praktikak dituzten eta joera ideologiko nazi argia duten enpresak-, eta segurtasun-enpresen publizitateaz inguratzen dute, bideo-zaintzako sistemak merkaturatzeko gogo biziz.



## LANDA-OKUPAZIOA

Atal hau amaitzeko, landa-okupazioak aipatu nahi ditugu. Fenomeno hori okupazioak izan duen beste alderdi bat da. Zerikusia du, alde batetik, industrializazioak sustatutako herritik hirirako exodoarekin, eta, bestetik, lurraren produktibitatearen ikuspegitik sustaturiko desjabetza eta metaketa kapitalistaren prozesuekin. Bai dinamika kapitalisten barruan bideragarritasun ekonomikorik ez dutelako, bai laborantzarako lurra baliorik gabe utzi edo isolatu dituzten azpiegitura handiak eraiki direlako, Europan zehar herri eta herrixka asko abandonatu dituzte bertako biztanleek.



Testuinguru horretan, landa-okupazioak herri abandonatuak edo despopulatuak birgaitzea sustatzen du, eta, aldi berean, ingurune horiekin lotutako beste gizarte-dinamika batzuk berreskuratzea. Okupazio horien adibide dira Lakabe, Arizkuren, Zazpe eta Urniza herri okupak -Nafarroan-, Uraiaga -Bizkaian- eta Nôtre-Dame-des-Landes inguruko ZADa, Nantes inguruan eraiki nahi zuten aireportuko lanak geldiarazteko asmoz okupatutakoa.

## JABETZAREN KONTRAKO ARGUDIOAK

Okupazioari buruz hitz egiten dugunean, gehien errepikatzen den argudioa, eta, agian, gizartean hedatuenetako bat da «nire jabetza denez, nahi dudana egin dezaket». Hau da, alokatu, saldu, hutsik eduki edo erortzen utzi. Esan dugun bezala, ideia hori oso errotuta dago gizarte-iruditerian, baina guztiz egiazkoa izatetik urrun dago.

Jabetza pribaturako eskubidea zuzenbidearen sorrera bezain zaharra da. Gure ordenamendu juridiko modernoaren sorleku den erromatar inperioaren garaian, jabetzarako eskubideaz hitz egiten zen eta eskubide absolututzat hartzen zen. Hala ere, XVIII. mendetik aurrera, badira ikuskera horren aurkako ahotsak, jabetza eta gizarte-funtzioa erlazionatzen dutenak; eta, gizarte-funtzioa bermatzen ez denean, jabetza pribatua mugatu edo are baztertu egin daiteke.

Jabeek, edo herentzia baten bidez jabe izango direnek, emandako argudioetako bat da legeek beren jabetza-eskubidea babesten dutela. Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua-  
ren arabera hori egia bada ere, jabeek ahaztu egiten zaie artikulua horrek berak, bigarren atalean, jabetzaren edukia erabilera sozialera mugatzen duela. Gainera, Konstituzioak berak lurzorua-  
ren erabilera espekulatiboa debekatzen du.

### 33. artikulua Jabego pribaturako eskubidea

1. *Jabego pribatu eta oinorde eskubidea aitortzen da.*
2. *Eskubide hauen funtzio sozialak hauen edukia mugatuko du legeen arabera.*
3. *Inor ez da izango bere ondasun eta eskubideez gabetua baliagarritasun publikoa edo interes sozial justifikaturen bat ez bada medio dagokion kalteordaina eta legeek erabakitzen dutenaren arabera.*

Baina, zer da gizarte-erabilera? Ez dago kontzeptu horren legezko definizioirik. Hori legeek mugatu behar dute, gizartearen inguruabarrak eta beharrak kontuan hartuta. Beraz, logikoa da pentsatzea, bizi dugun egoeran –milaka etxebizitza huts, milaka pertsona etxebizitza, esklabo gisa lan egin gabe jende gehienak etxebizitza duina eskuratzeko ezintasuna...-, egoera eta behar sozial horiek jabetza-eskubidea mugatzera bideratuta egon beharko



luketela, batez ere erabiltzen ari ez den jabetzarena.

Konstituzio Auzitegiak berak zenbait epaitan onartu du eskubide hori ez dela erabatekoa. 1987an, maiatzaren 26ko 37/1987 epaian, Konstituzio Auzitegiak hau esan zuen:

*“haren funtsezko edukia –jabetzarena- ezin da soilik egin eskubidearen edo hartan datzaten eskubide indibidualen ikuspegi subjektibotik, era berean, funtzio sozialari egin behar zaion aipamena ere jaso behar du; ez baita funtzio hori gauzatzearen definizioaren kanpo-muga soil, baizik eta eskubidea beraren zati”.*

Bestela esanda, ezin da jabetzarekiko errespetuaz hitz egin, jabetzak funtzio soziala betetzen ez badu.

Jabetzarako eskubide absolutuari aurka egin diezaiokeen beste argudioetako bat etxebizitzarako eskubidea da, Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua <sup>6</sup>:

#### **47. artikulua Etxebizitza izateko eskubidea. Lurraren erabilpena**

*“Espainol guztiek bizitza duin eta egoki bat izateko eskubidea dute. Botere publikoek behar diren baldintzak bultzatuko dituzte eta dagozkion arauak ezarriko dituzte eskubide hau gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorraren arabera araututa espekulazioa baztertzeko. Erkidegoak erakunde publikoetako hiri ekintzek dakartzaten plusbalioetan parte hartuko du.”*

Horrela, jabetza-eskubidea –gizarte-funtziotzat hartuta– eta etxebizitza-eskubidea bateratzen baditugu, argi geratzen da nork irabazten duen edo, gutxienez, nork irabazi beharko lukeen.

Bestalde, ahoa jabetza-eskubidearekin betetzen zaien guztiei gogoratu behar zaie eskubide orok betebeharrak batzuk dituela, eta jabetza horietako asko etxebizitza hutsak direla. Horrelakoetan zorrak izaten dituzte udalarekin, jabeen komunitatearekin...; edo hirugarren

---

<sup>6</sup> Artikuluak modu informatibo eta taktikoan baino ez ditugu aipatzen.



pertsonentzat arriskutsuak izaterainoko egoera txarrean egoten dira. Eta hori guztia jabeen erantzukizuna da.

## DELITU ARGUDIOA

Higiezinaren usurpazio delitua 1995. urtetik aurrera Zigor Kodean jasota dago. Ordura arte, delitua zen intimidazioa tarteko egiten zenean. Hala ere, Zigor Kodearen erreformarekin, delitutzat hartu zen higiezinaren okupazio baketsua.

Garrantzitsua da garai hartako errealitate soziala eta politikoari erreparatzea Zigor Kodean sartu izana ulertzeko. Urte haietan, gizarte-mugimenduek presentzia handia zuten kalean, eta mobilizatzeko eta erantzun politikorako gaitasuna oso indartsua zen. Testuinguru hartan, gobernu sozialdemokratak 1996ko maiatzean indarrean sartu zen Zigor Kode berria onartu zuen parlamentuan, eta, hala, esparru penalaren bidez, gizarte-mugimenduen bi jarduera garrantzitsu eta eraginkor jazarri nahi izan zituen: intsumisioa eta okupazioa.

Maila juridikoan, oso eztabaidagarria da okupazioa Zuzenbide Penalaren bidez jazartzeko beharra, arazoari heltzeko bide zibilak daudelako. Zuzenbidearen oinarriko printzipioen arabera, Zuzenbide Penalak Estatuaren azken tresna izan behar du, hau da, hain kaltegarria ez den beste biderik ez dagoenean erabiltzeko tresna. Hori dela eta, eztabaida dago okupazioak delitu gisa jasota egon behar ote duen edo, ostera, eragin penalik izan behar ez lukeen gatazka den, eta lehendik dauden lege zibilen bidez ebatzi beharko litzatekeen.

Hala ere, legezkoa dena eta okupatzea delitua den ala ez alde batera utzita, guztiz zilegi da higiezinaren espekulazioari aurre egitea eta etxebizitza zein erabilera kolektiborako espazioetarako eskubidea erabiltzea.

Gaur egun, kapitalismoak eta espekulazio-interesek oinarriko eskubideak –adibidez, etxebizitzarako eskubidea– arriskuan jarri nahi dituzte, beren negozioak garatzeko oztopo dira eta. Izan ere, okupazioaren kriminalizazio-kanpainen bidez, hain urrun ez dagoen etorkizunean, etxebizitzekin espekulatzeko legeentzako leku gehiago



egotea lortu nahi dute, etxeetan bizitzeko eskubidea bermatzeko baino.

Beraz, ez da legezkontasun-kontua, guztiz kontrajarriak diren bi errealitatearen aurrean jarri politiko hartzea baizik: etxebizitza izateko eskubidea edo higiezinaren espekulaziorako eskubidea. Ez dago erdibiderik.

## GIZARTE-ALARMA ARGUDIOA

Azken urteotan nabarmen areagotu da okupazioari buruzko desinformazioa. Kanpaina mediatico horien helburua ez da okupazioa eta okupatzen duten pertsonak kriminalizatzea soilik, baizik eta etxebizitzari buruzko alarma sozial oso zehatza sortzea eta beldurra-  
ren bidez manipulatzeko.

Egia da ondasun higiezinak okupatzea legez jazartzen dela, bai bide zibiletik, bai bide penaletik; horregatik izan da, besteak beste, desobedientzia zibilerako tresna. Hala ere, esan daiteke azken urteotan jarduera kriminalizatua izan dela, Estatuaren desinformazio-bideengatik ez ezik, bere oinarritzko eskubideekin espekulatzeko duena beharrean okupatzen duen pertsona etsai nagusitzat identifikatzen duen gizarte zibilaren aldetik ere.

Herri-errentatzaileen, higiezin- eta segurtasun-enpresen eta abarren diskurtsoetan oinarrituta, delituez hitz egiten da inolako zehaztasun juridikorik gabe, eta irudi eta mezu guztiz estereotipatuak eta interesatuak zabaltzen dira, beldurra eta nahasmena sortzeko helburu hutsez. Hori dela eta, herritarren artean eragin handia izan duten okupazioarekin zerikusia omen duten zenbait baieztapen egiten dira. Hona hemen horietako batzuk:

*“Ni ez naiz zure etxean sartzen”*

*“Ogitan joan eta etxea okupatu zioten bat ezagutzen dut”*

Zentzugabea da ogiatan joan eta norbait ez dakit norenean edo zure etxean sartuko dela pentsatzea. Norbaitek eraikin batean sartu nahi badu, eta bertan bere etxea ezartzeko asmoa badu, etxea abandonatuta dagoela ziurtatu behar du; izan ere, norbaiten etxebizitza balitz, ez litzateke okupazio kasua, baizik eta bizilekuaren bortxaketa delitua, eta polizia berehala esku hartuko luke. Aldiz, etxebizitza abandonatuei bakarrik euts dakieke –eta ez beti– denboran.



Berdinen arteko beldurra eta norgehiagoka sortzeko eraikitako gezurra da Zure etxean sar daitezke ideia, eta nahasmena sortzen du jendeak benetako etsaiak adieraz ez ditzan: higiezin-en espekulazioaren erraldoiak, besteak beste.

### *“Etxe okupatua arazoan sinonimo da”*

Beste gezur bat da okupatutako etxeak arazo-iturri direla; izan ere, utzikeria-egoeran dauden eraikinek ekartzen dizkiete arazoak auzotarrei: hezetasunak, zikinkeria, narriadurak, erorketa arriskua, komunitateari ez ordaintzea eta jabetza duenaren abandonuak eragindako gainerako egoerak.

Gehienetan, eraikin bat okupatzen duten pertsonak arduratzen dira eraikina konpontzeaz, txukuntzeaz eta bizitzeko prestatzeaz, komunitatearen gastuei aurre egiteaz eta, beraz, abandonuaren ondoriozko arazo horiek konpontzeaz.

Hori dela eta, okupazioa egoera arazotsuekin lotzea, arazoa bertan behera utzitako etxe kopuru handia dela hausnartu beharrean, berriz ere komunikabideen bonbardaketaren, manipulazioaren eta desinformazioaren ondorioa da.

### *“Guztiok eginez gero, egundokoa sortuko litzateke”*

Egundokoa da sistema kapitalistak bere tresna suntsitzaileenetako baten bidez, higiezin-en espekulazioaren bidez, gizartearen gehiengoarentzat sortzen duen egoera.

Pertsona gehienak prekarioan bizitzea da egundoko nahastea; izan ere, horrela oso zaila da etxebizitza eskuratzea, besteak beste, eta, lortuz gero, pertsonak itota daude alokairuaren prezioarekin edo bizitza osorako hipotekatuta. Okupazio-mugimenduak gizarte osoarentzako etxebizitza-eskubidea aldarrikatzen du, eta eskubide hori logika kapitalistatik eta espekulatibotik kanpo gauzatzen da.

Egundoko nahastea da kalean hainbeste jende egotea, etxe asko hutsik eta espekulazioaren eraginpean dauden bitartean, gizarte-beharrei erantzun gabe.

Jendeak etxebizitzarako eskubidea gauzatzea egundoko kakanahastea dela pentsatzea gure interesen alde egin beharrean, beren negozioetan aurrera egiteko desberdintasunean sakontzen dutenen, manipulatu eta beldurtu egiten gaituztenen diskurtsoan beste behin ere erortzea da, inor seinlatu gabe.



*“Etxe barruan zerbait gertatzen bazaie, nire erantzukizuna da”*

Okupatuak izan daitezkeen eraikinen jabe askok duten beldurra da. Beldur horrek logika badu ere, etxeak hutsik edukitzea nahiago duten interes espekulatiboen alde dago.

Etxe bat okupatuta dagoenean, eta gerta daitezkeen kalteen erantzukizuna –istripuak, erorketak...– jabearena izan ez dadin, erantzukizun zibileko aseguruak egin daiteke. Horrela, alokairu kasuetan bezala, erantzukizun ekonomikoak sortzen dituen zerbait gertatzen bada, gastu horiek aseguru-etxeak ordainduko ditu.

Eraikin bat abandonatuta dagoenean, berriz, eraikina hondatzen ari da eta kalteak eragiteko aukera gehiago dago. Kasu horretan, kalteak auzokoek jasaten dituzte, eta, askotan, jabeekin harremanetan jartzeko arazoak izaten dituzte, dagokien ardura har dezaten; izan ere, kasu horietan, jabeen erantzukizuna da.

Hori guztia etxebizitza hutsak berez duen kalteaz ez hitz egiteagatik, horrek espekulazioa areagotzen laguntzen baitu, eta horren ondorioz, bizitzeko lekurik ez duen jendea dagoelako.

## ETXEBIZITZA OINARRIZKO BEHARRA ARGUDIOA

Alde guztietatik kontsumo beharrez bonbardatzen gaituen munduan, benetako beharrak oharkabean pasatzen direla dirudi. Ura, osasuna, etxebizitza eta hezkuntza, edo gure gorputz eta emozioak berak, hiru kuotatan eroso ordaintzen diren salgai bihurtu dira.

Gure ustez, etxebizitzaren kontzeptua ez da kontsumo-ondasun soila, pertsona guztientzat bermatua egon beharko lukeen oinarrizko eskubidea baizik. Ez litzateke edozein baldintzatan lan egin behar etxebizitza gabe geratzeko beldurrez alokairu/hipoteka ordaindu ahal izateko, horrek dakarren desmoralizazioarekin; edo, besterik gabe, ez litzateke bizi behar etxebizitza galtzeko beldurrarekin.



Etxebizitza-eskubidea gizarte-arloko ia itun guztiek jasotzen dute; izan ere, etxebizitza duina izateko eskubideak, nolabait esatearren, gainontzeko eskubideekiko transbertsala da. Izan ere, etxebizitza pertsona guztien oinarrizko beharra da, edozein direla ere haien jatorria eta inguruabarrak; eta oinarrizko babeslekua da bizi-proiektu indibiduala edo kolektiboa garatzeko. Etxebizitzak, berau osatzen duten lau pareten dimentsio fisikoak gainditzen ditu, eta bizitza pertsonalaren eta komunitarioaren faktore baldintzatzaile edo erabakigarri bihurtzen da. Etxebizitza egokiak gainerako eskubideez gozatzeko aukera baldintzatzen du, hala nola intimitatea, osasuna edo gure bizilekua hautatu ahal izatearena. Eskubide horren ahalmen handia da, hain zuzen ere, gainerako eskubideak proiektatzeko oinarria dela. Edo bestela esanda: gure etxeak ematen digun autonomia eta intimitaterik gabe, nekez lortuko ditugu beste helburu sozial batzuk.

Zentzu horretan, pertsona guztientzako etxebizitza duina eskuratzea galarazten duten merkantilizazio ahalegin guztien aurka gaude. Ez dugu onartzen oinarrizko eskubide batean inbertitzea, ezta harekin espekulatzea ere.

## ESPAZIOEN BERRESKURAPEN ARGUDIOA

Nagusi den sistemaren arabera, onuragarriagoa litzateke etxebizitzak eraikitzea eta hutsik daudenak horrela uztea, merkatura atera edo etxebizitza publiko bihurtu baino. Baina hori guztia arrazoi bati zor zaio: etxebizitzak duen birbalorizazioa kontuan hartuta, etxebizitza behartzat hartu ordez merkatu-ondasuntzat hartzen den unetik beretik gertatzen den espekulazio hutsa.

Ez du zentzurik etxebizitza berriak eraikitzeak, beste etxebizitza batzuk hutsik dauden bitartean. Behar izanez gero, etxe hutsak birgaitu egin daitezke, eta, hala, ditugun baliabideak optimizatuko ditugu.

Adibide gisa, 10 etxe herri txiki bat irudika dezakegu. Biztanleek, hainbat arrazoirengatik, pixkanaka-pixkanaka alde egin dute, abandonatuta geratu arte. Egun batean beste jende bat gelditzeko asmoz iritsiko balitz, ez luke zentzurik izango beste 10 etxe eraikitzea lehendik daudenen ondoan, aurrekoak hutsik utzita eta, hartara, beste helburu batzuetarako erabil daitezkeen espazio, baliabide eta lurren bikoitza okupatuta. Askoz eraginkorragoa litzateke, ostera, lehendik dauden etxeak zaharberritzea haietan bizitzeko eta lurrak



lantzeko aprobetxatzea.

Herri baten kasuan argi ikusten den hori hirietan ez da hain erraz antzematen, etxe hutsak askoz sakabanatuago daudelako eta gutxiago ikusten direlako. Hala eta guztiz ere, ondorio praktikoak berberak dira. Hala, Eustaten 2022ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, Bilboko familia-etxebizitza guztien ia %11 ez dira etxebizitza nagusiak. Hau da, 17.802 etxebizitza ez lirateke erabiliko Bilbo lehenengo etxebizitza moduan, hau da, Santutxu eta Solokoetxe auzoek elkarrekin dituzten etxebizitzaren kopuru osoa. Horiek nahikoak lirateke Etxebiden erregistratutako etxebizitza-eskarien kopurua asetzeko. Datu horiek kontuan hartuta, herriaren adibidean bezala, ba al du zentzurik etxeak eraikitzen jarraitzeak jendea bizi ez den beste batzuk dauden bitartean? Argi dago ezetz.

## DENOK IRABAZTEN DUGU ARGUDIOA

PEtxebizitza eskubidea dela, eta etxebizitza hutsak mantentzea gure gizarteak onartu ezin duen luxua dela baieztatzetik abiatuta, eraikin hutsak egoteak ez dakarkio onurarik inori. Hutsik dauden etxebizitzak oso azkar hondatzen dira. Oso ohikoak izaten dira hirugarrenei eragiten dieten hezetasun-arazoak; baita pareten erorketak ere, inork antzematen ez dituenek, okerrera jotzen dutenak. Gainera, ohikoa da inor ez arduratzea komunitatearen kuotez, eta horrek kalte egiten die bizilagunei.

Kasu horietan erabil dezakegun beste argudio bat auzoen segurtasuna eta biziraupena da; ez da kasualitatea izaten etxebizitza hutsen ratioak askoz altuagoak izatea hirietako gune degradatuetan; izan ere, eremu horiek, bitxia bada ere, hirigintza-pelotazoen mende egon ohi dira. Hainbat etxebizitza hutsen atzean, eraikuntza-, sustapen- eta higiezin-enpresa handiak egoten dira, eta, metodo zitalenen bidez, onura ekonomikoa maximizatzen auzoen espoliazioa bizkortzen dute. Pelotazoen ondorioz, ezegonkortasuna, ziurgabetasuna eta bizikidetzaren degradazioa areagotzen dira. Denoi gustatzen zaigu bizirik dauden lekuetan bizitzea, jendez inguratuta, ez adreiluz soilik. Adibide bat San Frantzisko kalea izan daiteke, turismo etxebizitza gehien dituen Bilboko kalea, baina baita kaleratze gehien dituen kalea ere. Gure auzoetatik botatzen gaituzte.



Gainera, jabeari ere onurak ekar diezazkion negoziazioak ere badaude. Esaterako, alokairua; baina, eredu horretatik haratago, prekarioko kontratuak ere abantaila garrantzitsuak ditu. Horrelakoetan okupatzaileek etxea zaindu eta konpontzeko, argia, ura eta komunitatea ordaintzeko eta hasieran aipatutako arazoak saihesteko konpromisoa hartzen dute gehienetan.

Azkenik, ezin dugu geure burua engainatu. Ez da guztiz egia etxebizitza hutsa izateak ez diola inori onurarik ekartzen. Hain zuzen ere, oinarrizko bi arazoirengatik egoerari eustea oso errentagarria zaien espekulatzaile handiak daude -inbertsore deitzen zaie-. Bate-tik, batzuetan lurzorua etxea baino askoz ere baliotsuagoa delako, eta aukera ona da etxea erortzen uztea, gero lurra salduta aberasteko. Bestalde, etxebizitzari eustea -bahitutako etxebizitza deiturikoa- murriztu egiten du etxebizitzaren eskaintza, eta, ondorioz, prezioak igo egiten dira. Beraz, egia da, eta gure diskurtsoarekin inoiz ere jendilaje horrengana iritsiko ez bagara ere, haien aurrean argudio bakarra da etxebizitza oinarrizko eskubidea dela eta, horrexegatik, ez dela etxeekin espekulatu behar -ospitaleko oheekin edo ikastetxe batenko plazekin espekulatzeari imajina ezin dezakegun bezala-. Inbertitu nahi badute, inoren eskubideei kalterik egiten ez dien beste edozein gauzarekin egin dezatela.

## BIZIGARRITASUN ZEDULA ARGUDIOA

Zenbait esperientziek erakutsi digute bizigarritasun-zedularen, erreforma teknikoaren edo higie-ne eta segurtasun-baldintzen inguruko argumentua erabili izan dela okupazioa nahiz erabilera lagatzeko edo prekarioan lagatzeko kontratua eragotzi eta deslegitimatuzko. Bide administratiboen, ikuskapenen, aurreiritzi moralen eta diskurtso paternalisten edo onberen bidez udalek, oinarrizko gizarte-zerbitzuek, jabetzaren ondorengoek eta gure gertuko harremanek erabili izan dute argudio hori.

Kasu horietan ematen den indarkeria administratiboaz eta haren atzean dagoen klasis-moaz gain, okupazioaren modu anitzei buruzko susmo instituzional eta sozial iraunkorra agertzen da; ustezko ardura eta babesa argudiatuta segurtasunik eza azpimarratzen duen susmoa. Okupazioari zilegitasuna kentzeko moduetako bat, beraz, okupatzen dugunon infantilizazioa da. Erabilera segurua eta bere helbururako egokia izan dadin espazioa -etxebizitza, gaztetxea edo auzoetxea- birgaitzeko gaitasun kolektibo, autonomo, independente eta autogestionatua ukatu edo zalantzan jartzen saiatzen da, beraz, bizigarritasun-zedularen argumentua.



Etxebizitza-erabilerarako lagapen-kontratuak egin dira bizigarritasun-zedularik ez duten espazioetan –adibidez, baserriak, etxe aurrefabrikatuak, lokalak-, eta jabeen eta erabiltzaileen artean birgaitzea, mantentze-lanak eta erabilera-baldintza egokiak bermatzeko bideak adostu dira.

Hainbat hamarkadatan autogestioa, hau da, ezagutzaren, baliabideen, tresnen, lanen, birziklatzearen, auzolanen eta kidesun-sareen kolektibizazioa, okupazioaren historiarekin batera gertatu dela azpimarratu nahi dugu, eta, horri esker, abandonatuta edo espekulazio-proiektuetara bideratuta zeuden lekuak suspertu ahal izan dira.

Prekariatatea eta pobretzea ez dira hautaturiko baldintzak, sistema kapitalistaren ondorio baizik; beraz, nahikoa da diskurtso meritokratiko eta klasisten bidez errua egozteaz. Eskura ditugun baliabideak erabiltzen ditugu, eta komunitatean, elkartasunean eta elkarlaguntzan oinarritzen gara, bizi garen espazioak ez-segurua edo osasungaitzak izan ez daitezen.



**okupazio-  
aren egun-  
go tes-  
tuinguru  
soziala eta  
politikoa**



Amaitzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu okupazioaren egungo egoera politiko eta sozialari buruzko azterketa eta hausnarketa egitea.

Azken hiruzpalau urteetan, okupazioa kriminalizatzeko kanpaina masiboa egin dute he-  
dabideek eta ustezko segurtasun enpresek eta, oro har, klase politikoak. Kanpaina horrek  
alarma soziala sortu nahi du eta pertsonen artean beldurra zabaldu, sektore pribilegiatu-  
nen onura ekonomikoak areagotzeko.

Azken urteotako osasun- eta ekonomia-krisiaren ondorioz, baztertuak izaten ari ziren se-  
ktoreen prekarizazioa areagotu egin da. Ondorioz, etxebizitza-eskubidea bermatzea gero  
eta zailagoa da pertsona askorentzat; eta hipotekatuta daudenentzat gero eta zailagoa da  
hartutako zorrei aurre egitea. Prekarizazio-boladaren ondorioz, etxe-kaleratzeen boladak  
ematea aurreikus daiteke.

Sektore pribilegiatuenean eta lurzorua-aren negozioari etekin ekonomiko handiena aterat-  
zen dioten erakundeek ondo baino hobeto dakite egoerak honako hau eragingo duela:  
okupatzeko egoeran egongo diren kaleratutako pertsonen gero eta higiezin huts gehiago  
egongo dira; eta gero eta pertsona gehiago egongo dira bizitzeko alternatiba bilatzeko be-  
harrean. Haienok okupazioa izan daiteke bizitzeko eskubidea gauzatu ahal izateko beha-  
rrezko tresna.

Aurreikus daitekeen egoera politiko eta sozialaren aurrean, bankuek, inbertsio-funtsek  
eta gainerako sarraskijaleek lege-aldaketak behar dituzte beren jabetza pribatuak azkar  
eta prozedura legalik gabe berreskuratzeko. Horretarako, lehen pausoa eman dute, hau da,  
jendeari beldurra sartzea bere etxea okupatzeko benetako arriskua dagoela pentsarazita,  
eta, hala, okupazioaren fenomenoaren lehen mailako arazoa dela pentsaraztea. Modu horre-  
tan, pentsamendua aldatu nahi dute, eta, horren ondorioz, etxebizitzarako eskubidearen  
kaltetan, espekulatzeko eskubideari balio eta aintzatespen handiagoa emango dioten poli-  
tiketara aldatu nahi dute botoa.

Oso garrantzitsua da azpimarratzea aurrefabrikatutako eta manipulazioan eta beldu-  
rraren politikan oinarritutako gizarte-alarma hori antolatuta duten erakundeen helburua  
haien ondare kalkulaziaz defendatzea dela. Horrela, ustezko segurtasun-enpresek  
beren produktuen salmentak handitu nahi dituzte; bankuek eta inbertsio-funtsek lege-  
aldaketak eragin nahi dituzte kaleratutako pertsonen etxebizitzekin inolako lege-mugarik  
gabe salerosketan aritzeko; eta neoliberalismoak eta haren alderdi politikoek agertoki bat



sortu nahi dute, non pribilegiorik ez dutenek ezin izango dituzten oinarritzko eskubideak - adibidez, etxebizitza-eskubidea- gauzatu. Interes horiek ez dute zerikusirik herritar arruntentzen interesekin.

Testuinguru sozial horretan, okupazioa arazoa dela uste baduzu, gogoratu askoz hurbilago zaudela hartutako zorrei aurre egin ezin izateagatik bankuak etxetik bota eta etxerik gabe geratzeko, edonork zure etxea okupatzetik baino.



**Ego-  
era hor-  
ren aur-  
rean,  
antolatatu  
eta ok-  
upatu!**

